


Nagore Amenabarro, bidearen hasieran





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Maite Asensio **3**

Baso Ertzetik

Jon Ander Galarraga **6-7**

Wattaria Imanol Landa Medrano **8-9**

Asteko Gaia

Maider Amenabarro artista **10-17**

Bertsoa Aitor Mendiluze **19**

Iritzia Julen Telleria **20**

Iritzia Onintza Lasa **21**

Erreportajea Bonberenea,
garai berrietara egokiturik **26-29**



26-29



21



Azaleko irudia
Eneritz Maiz

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana egiten

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNE: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txokirre

Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



MAITE ASENSIO
HEZITZAILEA

Kolore arrosaren iraultza

G abon inguru honetan jostailuen katalogo-ek urtero sortzen duten eztabaida bat aprobetxatu nahi nuke, gai jakin baten inguruan hitz egiteko. Jostailuak nesken-tzat edo mutilentzat sailkatzearen kontua, zaharkitu xamarra geratu dela esatera ausartuko nintzateke. Baina adinean aurrera joan ahala, askatasun hori, ikustea eta bizitzea geroz eta zailagoa dela, jakin ere badakit.

Ama izango nintzela jakin nuenean berehala, eskatu nien ingurukoei, ez oparitzeko kolore arrosa edo urdina zuen arroparik eta iraultzaile sentitu nintzen erabaki hori hartu nuenean. Semeek kolore desberdinetako arropak izan zituzten, beraiek aukeratzeko gaitasuna izan arte. Biei gustatu izan zaie azazkalak margotzea, zaharrenari behintzat lau urte zituela, hori nesken kontua zela esan zioten arte. Orduan hasi nintzen konturatzen, jendartean oraindik aurreiritzi asko genituela, eta gurasook aurreiritzi horiek seme-alabei transmititzen dizkiegula. Baina lehen iraultzaile sentitu nintzela esan badut ere, gure etxera iraultza seme txikiarekin etorri zen. Txikitatik gustatu izan zaio kolore arrosa. Printzesen mundua maite du, baita kamioiena ere. Bere gustuko gauzak aukeratzeko hasi zen egunetik, aukeratu izan ditu, ahal duen guztietan, arrosa koloreko gauzak. Momentu horretan bertan konturatu nintzen ordea, «ni, ez nintzela hain iraultzailea» izan ere, nik neuk, nire kabuz, ez nien inoiz arrosa koloreko arroparik erosi. Eta horrela hasi zen gure familiako guda txikia. Izan ere, zerbait erostera joaten garen bakoitzean, nahi gabe bada ere, dendariek desberdin sentiarazten dute semea. Bere begiekin

ikusten baitu, bere gustuko kolorea edo marrazkia duten hori, alde batera uzten dutela. Orduan, beti entzun behar izaten du amaren edo aitaren ahotsean, «Arrosa edo more kolorekorik baduzue? Guri asko gustatzen zaizkigun koloreak dira». Eta ez, niri ez zaizkit kolore horiek inoiz gustatu, nire semeari gustatzen zaizkio, baina nolabait babesa eman nahian esaten dugu, nekagarria baita zerbait erostera joaten garen bakoitzean azalpenak eman behar izatea.

Eta horrela hasi zen gure familiako guda txikia. Izan ere, zerbait erostera joaten garen bakoitzean, nahi gabe bada ere, dendariek desberdin sentiarazten dute semea.

Badakit, hori entzuten duen bakoitzean, desberdin sentiarazten dugula, badakit, beste haur batzuek ere batzuetan desberdin sentiarazten dutela beraien aurreiritziekin, baita helduek ere, arrosez jantzitako mutikoa begiratzen dutenean. Baina arrosa kolorea gustatzen zaion haur bat besterik ez da, zer gustatzen zaion eta zer nahi duen argi duena, eta hori inork inoiz bere aurreiritziekin aldatzerik nahi ez nukeena. Tontakeria bat dirudi, baina batzuei, arrosa kolore bat besterik ez dela gogorarazi behar zaie, etiketarik gabekoa, etiketak pertsonen aurreiritzietan bakarrik baitaude.

BEREZIETAN BEREZIENA

Ataria Bertso Jaialdia izango da bihar, 18:00etatik aurrera, Tolosako Leidor aretoan. Ateak 17:30ean zabalduko dira eta ikusleei arretaz jokatzeko eskatu nahi die 'Ataria'-k. Saioa bi orduz luzatzea aurreikusten da.

Urtero izaten da berezia Ataria Bertso Jaialdia. TOLOSALDEKO ATARIA-ko lantaldeak mimo handiz prestatzen du ekitaldia urtero, eskualdeko bertsozaleen gozamenerako. Aurten, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, are bereziagoa izango da jaialdia, baina ahalegina egin da saioa aurrera atera eta segurtasun neurriak betez, urteko saioa 2021ean ere egiteko. Larunbatean izango da eta Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Sustrai Colina ariko dira bertsoan. Urteroko moduan Amaia Agirrek egingo ditu gai jartzaile lanak.

400 bertsozale

Saioa 18:00etan hasiko da eta ateak 17:30ean zabalduko dira. Aurtengoan sarrera gutxiago atera behar izan dira, 400 guztira, eta guztiak saldu dira jada. ATARIA-k herritarren prestutasun eta babesa eskertu nahi du. Sarrerak zenbakituak dira eta bakoitzak ezker-eskuin ez du inor izango. Esan bezala, ateak 17:30ean zabalduko dituzte eta 17:50etarako bakoitza bete tokian eserita egotea komeni da.

SEGURTASUN NEURRIAK ZORROTZ BETE BEHAR DIRA ETA ONDORIOZ, HONAKO BETEBEHARRAK IZANGO DITU IKUSLE BAKOITZAK:

- Leidor aretoaren kanpoan zain daudenek ilara mantendu beharko dute eta pertsonen arteko distantzia errespetatu beharko da.
- Sartzerakoan eskuak garbitu beharko dira atarian egongo den gelarekin.
- Sartzerakoan Leidor bertako langileak eta ATARIA-ko lantaldeko kideak izango dira bertan, bakoitzak nondik sartu behar duen azaltzeko.
- Bakoitzak bere eserlekuan eseri beharko du eta maskara jarrita eduki beharko da saio guztian zehar.
- Saioa amaitutakoan alboko ateetatik atera beharko da, ilaran eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz. Behin saioa bukatuta eta jende pila-etak ekiditeko Leidor atzeko plazetan ez geratzea eskatzen da.
- Arduraz eta lasaitasunez jokatzeko eskatu nahi du ATARIA-k.

Internetez ikusteko aukera

Segurtasun neurriak direla eta, gehienez 400 lagunek jarraitu ahal izango dute saioa Leidorren bertan, baina ATARIA-k ez du inor kanpoan utzi nahi eta *streaming* bidez eskainiko du ere.

Aurtengo egoera dela eta, nahiz eta pertsona erdiak sartu Leidorren, saioa jarraitzeko aukera zabaltzeko ahaleginak egin ondoren, bestelako bideak irekiko ditu ATARIA-k bertaratu ezin direnek ere jarraitu dezaten.

TOLOSALDEKO ATARIA-ren webgunean ikusi ahal izango da saioa eta hau Bertsozale Elkartearekin eta ETBekin elkarlanean egingo da. 18:00etan bertan ikusi ahal izango da beraz, *ataria.eus* webgunean. Era berean, *Ataria Irratiak* saio guztia emango du zuzenean eta 107,6 fm bidez eta *ataria.eus/irratia* bidez entzun ahal izango da. Datorren astean zehar saio guztia igoko du ATARIA-k bere webgunera lasai eta edozein momentutan ikusi ahal izateko.

OIHANA MAIALEN AMETS ANDONI ANE SUSTRAI
IGUARAN LUJANBIO ARZALLUS EGAÑA LABAKA COLINA

GAI JARTZAILEA
AMAIA AGIRRE

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2021

URTARRILAK 16, LARUNBATA, 18:00ETAN TOLOSAKO LEIDOR ANTZOKIAN.





**JON ANDER
GALARRAGA**
BIOLOGOA

Gaztainondoak ezkurak ematen ditu

Gaztainondoak ezkurak ematen ditu», esan zuen zazpi urteko mutiko begi urdin hark. Mutiko hura ez zen beste herrialde batekoa, mutiko begi urdin hura Gipuzkoa barrualdeko herri txiki batean jaio eta hazi zen eta ehun eta hamar abizen euskaldun zituen. Mutiko begi urdin hura gaztainondo eta haritzez inguratuta bizi zen... baina ez zituen gaztainondo bat eta haritz bat elkarrengandik bereizten.

Mutikoaren herri txikiak 600 biztanle inguru zituen, bere etxea, ingurune natural paregabe baten erdian zegoen. Inguruan ehunka baso, larre eta mota ezberdinetako bizidunak. Goizero oilarren kantuek esnatzen zuten mutikoa, eskolara bidean hamar zuhaitz espezie azpitik igarotzen zen, bidean bost intsektu espezie pasatzen ziren bere aurpegi aurretik eta hogeitaz gertatzen zirenak entzunez iristen zen eskolara. Baina mutikoak bidean zuhaitz bakar bat ikusten zuen, kasualitatez «txori» baten kantua entzun zuen eta bere begien paretik ez zuen intsekturik igarotzen ikusten.

Arraroa dirudien fenomeno hau, oso ohikoa izan da hiriguneetako haur, gazte eta helduen artean eta gaur egun *alfabetizazio berdearen eza* deritzo. Nahaste honek, balio naturalen aurreko interesik eta ikuspeirik eza dakar; arrazoia, naturarekin erabat deskonektatuta da goen gizarte batean bizitzea.

Hiriguneetako biztanleriaren artean arrunta eta neurri batean ulergarria izan daiteke. Kezkagarriena, ordea, zera da, herri txiki eta baserri giro oso euskaldunetako haur eta gazteengan ere fenomeno hau ema-

ten dela. Galdetu bestela zuen etxeko txiki eta ez hain txikiei ea hamar zuhaitzen izenak esaten ba al dakiten... eta hamar zuhaitz hauetatik, zenbat identifikatzeko gai diren.

Nabaria da, naturaren jakintza eta ikusgarritasuna galtzen joan dela belaunaldiz belaunaldi. Gure aitona-amonek naturarekin zuten harremana askoz ere estuagoa zen. Izan ere, garia noiz erein, noiz bildu, abereen maneia edo ehizatzeke garaiak jakitea ezinbestekoa zen familiaren biziraupenerako.

Ene amona maiteak dio, urte batean Altzon, berau oso txikia zela, maiatzean elurra egin omen zuela eta galsoro guztia elurak estali omen zuela. Oraindik gogoan omen du baserri aurreko galsoroa elurrez txuri eta gari guztia elurpean etzanda, bere ama atarian negar batean zela. Egunean zehar elur hura segituan desagertu omen zen, baina egun oso batean gosearen mamua egon zen dantzatzen, hamar seme-alaba zituen Altzoko baserri xume hartako etxeko sukaldean, garirik ez zuten jateko ezer ez ahoan.

Gaur egun galdetu gure txikienei zer den garia, noiz erein behar den edo maiatzean elurra egitea ona ala txarra ote den. Zorionekoak gaur egun ez dugulako

eguneroko eguraldiaren menpe egon beharrik eguneko janaria lortzeko.

Ez da harritzekoa beraz, lehengo belaunaldiek urtea zeruari, ilargiari, hegaztien hegaldiei, letxuguen zomorroei, gariaren koloreari eta udazkeneko soinuei adi arratsaldeak pasatzea. Naturan bizi zirenak eta ezagutu egiten zuten.

Oso ohikoa izan da hiriguneetako pertsonen artean; eta 'alfabetizazio berdearen eza' deritzo gaur egun

Gaztainondoek ezkurak ematen zituztela ziur zioen mutiko begi urdin honek, egunaren gehiengoa ikasgelan igarotzen du, zementuzko patiora irteten da eta arratsaldea, plastiko urdin, hori eta gorria den parkean igarotzen du... Berarengandik ehun metrora, animalia, landare eta natur baliabidez jositako eremu zoragarri, dibertigarri eta ikusezin bat duela kontuan izan gabe.

Mutiko begi urdin hura egun batean ikastetxeko bere gelan sartu da eta irakaslearen alboan emakume berri bat ikusi du, baso eskolako teknikaria omen da. Irakasleak, emakume hura aurkeztu die, biologo bat dela dio eta berarekin eguna ikastetxetik hamar minutura dagoen basoan igaroko dutela, egunari baso-eskolako eguna deitu dio irakasleak. Baso hura beti egon da hor, baina noski, ikusezina zen ikasle eta hauen gurasoen begietara.

Tipi-tapa basora iritsi dira eta mutiko begi urdinak asfaltoa zapaltzeari utzi eta belarra zapaldu du, apur bat bustia dago, irregularra da eta lokatz pixka bat dago. Bezperan gurasoek erosi zizkieten mendirako zapatilak lokatzaz zikindu ditu, ene bada! Oinetakoak lokatzarekin zikinduta!

Hamar pauso eta basoan barneratu da, zuhaizpean ilun dago, zuhaitzen adar okerrekin zerua estaltzen dute. Landare misterioitsu ezberdinak ikusten ditu nonahi oinetan kili-kili eginez, xomorro higuigarri mordoa dago eta hau gutxi balitz, txoritxo txiki ezezagun bat igaro da guztien gainetik, «Txio!» mehatxugarri bat eginez. Ikasleak izuturik daude.

Biologoak lurrian esertzeko esan die, inongo aulki edo plastikorik gabe! Eta arrisku guztien gainetik, biologo zoro hura lurrian eseri da. Ostean, inongo eskularru eta segurtasun neurriarik gabe, mota guztietako landare eta xomorroak hartu ditu eskuekin, ikasleei banan-banan gertutik erakutsiz, ukitzera gonbidatuz, izaki haien istorioak kontatuz... Mutiko begi urdinak ez zekien zizare eta kakalardo baten bizitza hain interesgarria izango zenik! Mutiko begi urdinak hamar minututan, mundu berri bat deskubritu du: zizareak hermafroditak dira, haritzak ezkurak ematen ditu eta «xomorro» guztiak ezberdinak dira!

Biologoak ikasleei altxatzeko eta basoa esploratzeko gonbita luzatu die. Mutiko begi urdina altxa egin da, eskuak eta ipurdia garbitu ditu, ez daki nora jo, ez dago txirrista edo jolasteko ezer, ez daki zer egin. Bat-batean zoruan makil bat topatu du eta lurrean sartu du, basoko txabola baten lehen zutabea ipini du. Gero harri gehiago hartu ditu eta etxetxo bat eraiki du lagunetik, etxetxotik aurrerago lokatzezeko txirrista dibertigarri bat eraiki dute eta ostean inguruko zuhaitzen adarretan zintzilikatuz kulunkatu dira. Lokatzarekin txokolatea egin dute eta putzu bat aurkitu dute zapaburuz beteta.

Guztiak leher eginda eta egun dibertigarri bat igarota, basoari eskerrak eman dizkiote eta gelara doaz, mela-mela eginda, lokatzezeko aurpegian irribarre batekin. Esploratzaileak, tximinoak, arkitektoak, txirrista-sortzaileak, animalia adituak, landarezaleak... horiek guztiak izan dira egun bakarrean.

Plastikozko parke, hori, gorri eta urdinaren albotik igaro dira, inork ez dio kasurik egin, beraien burua hurrengo egunetan basoan egiteko dutenaz pentsatzen daude, analfabeto naturalak izaten jarraitzen dute, baina atzo baino gutxiago, eta gutxi dirudien arren... bada zerbait.





**IMANOL LANDA
MEDRANO**
CIDETEC
FUNDAZIOKO
IKERTZAILEA

Arnasten duten bateriak

Ohikoa izaten da ikertzaileok naturan ikusten ditugun prozesuetan oinarritzea gure garapen berriak gauzatzeko. Horixe da, adibidez, testu honetako bateria motaren kasua, nire lehen ikerketa-gaia izan zirena: metal-aire bateriak.

Zergatik *metal*? Elektrodoetako bat (osagaietako bat) metal bat da. Metal horrek erreakzionatu egiten du, eta beste elektrodoari (beste osagaiari, *aire* elektrodoari) erre-akzioak egitea/izatea ahalbidetzen dio. Metal elektrodoa ez da horren berezia aire elektrodoarekin alderatuz gero, ez dugu gehiagi sakonduko. Metal ezberdinak erabili daitezke: geroz eta arinagoa metala, orduan eta energia handiagoa emateko gai da, baina lan egiteko arazo gehiago ditu. Esaterako, nik litio eta sodio metalak erabiltzen nituen nire ikerketetan, eta metal arin-arin hauetan oi-


Zinka bezalako metal astunagoetan oinarritutakoak, aldiz, entzumena hobetzeko gailuetan edota mendian aurki daitezkeen hesi elektrifikatuak elikatzeke erabiltzen dira

narritutako bateriak ez daude eskuragarri merkatuan. Zinka bezalako metal astunagoetan oinarritutakoak, aldiz, entzumena hobetzeko gailuetan (*sonotoneetan*) edota mendian aurki daitezkeen hesi elektrifikatuak elikatzeke erabiltzen dira.

Hala ere, naturan aurki daitezkeen prozesuetan oinarritzen diren bateri batzuei buruz hitz egingo nuela esan dut eta mimetizazio hori

aire elektrodoan gertatzen da: bateria hauek *arnastu* egiten dute. Zirrkitu txiki batzuen bidez, bateria barrura airea sartzen da, eta airearen oxigenoa erregai bezala erabiltzen da energia lortzeko. Ondoren, bateria hauek entxufe batera konektatutakoan, sare elektrikoaren energia erabilita lehenago erabilitako oxigenoa berriz ere atmosferara itzuliko da.

Bateria hauek energia asko eman dezakete (egun erabiltzen



ditugun litio-ioi bateriek baino handiagoa), osagai oso merkeekin eginda daude eta ingurumen-inpaktu txikia daukate. Hortaz, zergatik ez dago hauen erabilera zabaltzeko? Gakoa baterien kargan dago: albo erreazio asko izaten dituzte eta oso zaila da aurrez erabilitako oxigeno kopurua berriz atmosferara askatzea. Efizientzia eskasa dute, alegia. Gainera, ez dira gai deskarga-karga ziklo asko gauzatzeko, batez ere litio-ioi bateriekin alderatuz gero. Ondorioz, bateria hauek askotan *pila* modura erabiltzen dira: daukaten energia agortu ondoren bota egiten dira: *sonotonea* behar dutenek ondo asko dakite pila horiek ezin direla birkargatu. Lehen aipatu dut material merkeak erabilia egiten direla, baina material merke hauek erabilera bakarrekotak izanez gero, ez dira horren errentagarriak: ekonomikoki bere-

Bateria hauek askotan 'pila' modura erabiltzen dira: daukaten energia agortu ondoren bota egiten dira

ziki interesgarriak lirateke behin eta berriz kargatuko balira.

Edozein kasutan, birkargan ikertzen dihardugun bitartean, badira bateria berezi hauek erabiltzeko moduak. Entzumenerako gailuz gain, hesi elektrikoak aipatu ditut. Haietara konektaturiko zink-aire bateriek bi urtez egin dezakete lan energia agortu aurretik. Beste aplikazio interesgarri bat dagoeneko litio-ioi bateriak dituzten auto elektrikoetan erabiltzea da. Adibidez, gure auto elektrikoak 400 km-ko autonomia badu eta

500-600 km-ko bidaia bat egin nahi badugu, metal-aire bateriek beste 100-200 km erantsi ditzakete, baina erabilera bakar batekoa litzateke bateria gehigarri hau. Askotan, produktu perfektu bat izan bitartean oso baliagarria da produktu inperfektuen neurriko aplikazioak aurkitzea, ikerketan inbertitutako diruaren errentagarritasuna lortzeko.

«Askotan pentsatuz baino gehiago eginez etortzen zaizkit gauzak»

NAGORE AMENABARRO
ARTISTA

Azaroan jarri zuen 'Platina' erakusketa Donostiako San Telmo museoan Nagore Amenabarro amezketarrak, eta otsailaren 7a bitartean bisitatzeko aukera izango da; bitxigintza eta eskultura lotu ditu, eta tamaina ezberdineko lanez gain, margotutako irudiek osatzen dute erakusketa.

Eneritz Maiz Etxarri

G

aztea da Nagore Amenabarro (Amezketarra, 1986), baina artearen munduan bere tokia egiten ari da, poliki-poliki. Diskrezio handiz darama bere ibilbidea. Donostiako San Telmo museoko

Laborategia aretoan jarria du azaroaz geroztik *Platina* erakusketa, eta otsailaren 7a bitarte izango da. Artistak San Telmo museoko erakusketa gelan erantzun ditu TOLOSALDEKO ATARIA-ren galderak.

Noiztik edo nondik datorkizu artearekiko grina?

Nik gogoan dudala nahikoa txikitatik esango nuke.



Nagore Amenabarro «oso pozik» dago bizitzen ari den momentuarekin. **E.M.**

Betidanik gustatu izan zait eskuekin gauzak egitea. Eskulanak, marraztea... baina ez da izan txikitatik dudana obsesio bat ere. Gustukoa izan dut, baina modu naturalean.

Etxean izan zenuen bultzadaren bat edo zure kabuz hasi zinen?

Etxean asko landu ditugu eskulanak edota errezetak egitea, josteko gauzak... eskulanekin harremana duten jolas asko proposatzen zizkigun amak, eta nik uste, horrek eragina izan duela.

Arte Ederrak ikastea erabaki zenuen. Garbi izan zenuen ikasketak aukeratzeko orduan?

Egia esan bai. Nahiko garbi, baina ez zen izan hainbeste hori nahi nuelako edo horren bila nenbilelako, baizik eta ia-ia esaten den moduan deskarte bidez aukeratu nuen. Zer ikasiko nuen pentsatzen jarri nintzenean, ez zitzaidan beste aukerarik bururatzen, edo oso gutxi. Orduan honekin aurrera egitea izan zen aukera.v

Gustura egin zenituen ikasketak?

Karrera ikasi nueneko oroitzapenak oso onak dira. Noski, gorabeherak beti daude, eta eremu askotan bezala, azkenean norberari hausnartu arazten dizkioten gauzak gertatzen dira bizitzan. Orain atzera



begiratu eta dudan oroitzapena oso positiboa da. Bai ezagutu nituen irakasleengatik eta baita niretzat izan zen esperientziarengatik ere. Asko eman dit.

Ikasketa horiekin Parisera ikastera joateko aukera ere izan zenuen?

Bai. Erasmus beka batekin joan nintzen karrerako azken urte erdian edo. Eta aurretik esan moduan esperientzia oso positiboa izan zen; oso aberasgarria. Paris bezalako hiri handi batean egotea, beste hizkuntza batean moldatzea,... Kuriositatea pizten dizuten estimulu asko daude. Atzerrira joatean nik behintzat horrela jasotzen edo antzematen ditut, eta alde horretatik ere oso positiboa izan zen.

Artearen barruan aukera zabala dago. Zein da erosoan sentitzen zaren esparrua edo zein bide hartu duzu?

Esango nuke, orain artean, batez ere, pinturaren alorrean aritu naizela lanean, baina erakusketa honetan,

esaterako, eskultura edo objektu dezente daude ikusgai. Horren harira esango nuke bilatzen ari naizela, eta ez dakit posizionatzen, edo hobeto esanda, ez dut posizionatu nahi. Bideak esango dit pixkanaka zein aldetara noan, baina, egia da, orain artean, pinturaren alorrean aritu naizela gehiago.

Hori da gehienbat landu duzuna, pintura?

Bai, esango nuke baietz. Orain artean behintzat bai.

Azaroan jarri zenuen Donostiako San Telmo museoan 'Platina' lana biltzen duen erakusketa. Zer da 'Platina'?

Objektuak eta eskulturak biltzen dituen erakusketa bat da. Irudi margotu batzuk ere badaude, eta nolabait, kasu honetan, eskultura eta bitxigintzaren arteko jolas bat planteatu dut, eta izenburuak horri erantzuten dio. Nolabait gustatzen zitzaidan materialaz hitz egiten duelako. *Plata*, hau da, zilarra ekartzen duelako gogora. Platinoa baita ere. Baina pletina bat

ekarri dezake edo patina bat... prozesua eta materiala bezalako aspektuak lotzen edo biltzen ditu, eta aurkitzen diren pieza ezberdinak nolabait biltzen dituen izenburu bat iruditzen zait.

Zer da erakusketan ikus daitekeena?

Batez ere eskulturak, objektuak eta margotutako irudi batzuk. Eremu horietan mugitzen da erakusketa.

Zein material erabiltzen dituzu lan horiek egiteko?

Egia esan, dezente. Irudi margotuak paperaren gainean margotuta daude, eta aldiakarietako irudietako batzuen gainean esprai pinturarekin eginak dira. Eta bestetik altzairu herdoilgaitza, eskaia, metal dezente, poliesterezko erretxina, alabrea,... Egia esan nahiko askotarikoa da alde horretatik.

Material aldetik, beraz, irekita zaudete.

Bai, ahal dudan guztian behintzat bai. Ez dut obsesio edo finkatze berezirik oraindik, eta oraindik ez dut itxi nahi, zeren material bakoitzak bere aukerak ditu eta iradokitze potentzia du. Batzuetan, materialak bakarrik erabiltzen dituzte leku batera. Eta kontrakoa, esperimentazioaren parte da, eta ez bakarrik materialak erabiltzen dituzte; ez da hain-hain garrantzitsua lana egiteko momentuan. Batzuetan aurkitzen dituzten gauzak dira, eta noski material bat dute, forma bat dute, eta izaera bat dute dagoeneko alde aurretik, baina horrekin zer egin dezakedan, nola berrinterpretatu... Batzuetan ariketak horretan datza.

Era berean, tamaina oso ezberdineko lanak dira.

Hain justu, eskala izan da interesatzen zitzaidan ezaugarrietako bat. Horren bila joan naiz. Txikitik handira, barrutik kanpora, era horretako harreman dualak proposatuz. Funtzioari nolabait galdera batzuk planteatu dizkiot.

Zertan oinarritzen zara edo zerk inspiratzen zaitu lan bat egiteko orduan?


Ez da batere galdera erraza. Nire kasuan ez dago gauza bat seinaltatzeko modurik. Gehienetan kontrakoa izaten da. Prozesutik etortzen da. Noski egongo direla iturriak inspiratzen nautenak, edo lanean jartzeko grina hori sortzen didatenak, baina askotan

pentsatuz baino gehiago eginez etortzen zaizkit gauzak. Bitxigintza eta eskulturaren arteko harremanaren premisa hori neronek jarri nuen edo hobeto esanda aprobetxatu egin nuen erabiltzeko. Baina sortu egin zen. Hasieran nituen belarritako itxurako batzuk, eta moldaketa edo forma aldaketa bat egin nien eta horrekin jolasean nengibela zerbait egon zitekeela ikusi nuen. Hori aprobetxatu nuen, eta horrek irekitzen dizkidan bideak eskalaren kontua jorratze-

ko aukera eman zidan, edo funtzioaren inguruan galderak egitekoa.

Zerbait mugatzen du: Hau da, eskala txikiko objektuak, eta zer egin dezaket hemen? Oso irekia da, eta pentsa zenbat material dauden, eta zenbat posibilitate. Pittin bat mugatzen du, eta horrek ematen dit aukera martxan jartzeko, eta ez hainbeste pentsatzeko zer egingo dut edo zer

«Oraindik ez dut itxi nahi, zeren material bakoitzak bere aukerak ditu eta iradokitze potentzia du»



Bitxigintza eta eskultura uztartu ditu 'Platina' erakusketan. E.M.

interesatzen zait edo zer nahi dut, baizik eta mugatze horren barruan ea zer gertatzen den.

‘Platina’-ren barruan pieza oso ezberdinak daude. Nola gauzatzen dituzu, hau da, bata bestearen atzetik datoz, denbora tarteak daude...

Erakusketa honetan dauden lanak gutxi gorabehera esan dezakegu, lanik zaharrenak urte eta erdi, asko jota bi urte dituela. Beste guztiak azken hilabeteetan landu ditut. Denbora tarte horretan ibili naiz lanean, eta nire lan prozesuan iruditzen zait, momentuz, aberasgarria dela jauziak egitea. Gauza baten sakoneran lantzen egon beharrean, batetik bestera pasatzen naiz, itxuraz. Azken batean guztiek dute harreman bat. Lanak egin ostean ageriago geratzen dira ez direla beraien artean hain ezberdinak. Forma aldetik bai, eta hasiera bateko begiradan hori ikus dezakegu, baina prozesu aldetik edo lantzeko modu aldetik nik behintzat lotura dezente ikusten diet. Nahiz eta itxuraz oso desberdinak izan.

Ia bi urteko lana da ikusgai jarri duzuna. Nola antolatzen zara lan hauek egiteko?

Antolatze hori pixka bat hobetu beharra daukat, ez delako oso erregularra, baina, agian, horrela izan behar du [Barreak]. Askotan gauzak kokatzen saiatzen gara, eta ez dauka horrela izan beharrik. Egia da proiektu bat esku artean dudanean edo mota honetako erakusketa baten proposamena edo motibazioa dudanean, hor bai lortzen dudala errazago indarrak kontzentratzea. Bestela ziklikoagoa da, ez naiz oso erregularra, hau da, ez dut ordutegi bat betetzen, askoz ere organikoagoa da mugimendua. Produzitzen ez dudana momentuak badaude, baina makinaria ez da gelditzen. *Platina* sortzeko, esaterako, gauza asko destilatu moduan egiten

«Aspektu askotan pribilegiatu bat sentitzen naiz, edo behintzat esker oneko bizitzen ari naizenarengatik»

Eskala izan da interesatzen zaion esparruetako bat, eta dimentsio eta forma askotako lanak daude. **E. M.**




dituzu; norberaren pentsamenduak, sentimenduak,...

Nire kasuan proiektu zehatzago bat dagoenean kontzentratzen dira. Hor presioa sartzen da, eta lan egin behar duzu. Bestela bere martxan jarraitzen dute eta pixkanaka joaten diraosatzen.

Zer da lanik gehiena eman dizuna, edo zenbat denbora pasa dezakezu pieza batekin?

Oso zaila da kontabilizatzeari. Pieza batzuk forma hartzeko fisikoki ez



dute hainbeste denbora behar, baina zer hartuko dugu egiteko momentua bakarrik? Edo esan dudan moduan aurretikako prozesu guzti hori ere hartuko dugu? Pixka bat zaila da. Gure inkontzientea ere lanean ari da bere kabuz, eta hori ez dugu kontatzen noski, ez garelako konturatzen. Esaterako, ordea, esprai pintura erabiltako irudi margotuak azkarrek dira. Ariketa nahiko azkarra da, eta hain justu horregatik gustatzen edo interesatzen zaizkit momentu honetan.

«Irakasle postu batean egoteak behartu nau nire lanaren inguruan hausnarketa pertsonal bat egitera»

Berrinprimatze prozesu baten modukoa da. Aldizkari edo katalogo bateko irudi bat hartu, eta irudi horri zein erantzun ematen diodan pentsatzea da ia-ia. Edo zer proposatzen dudan nik irudi horrekin egitea. Prozedura ezberdinak daude espraiarekin lantzeko, baina maskaratu, espraikada bat bota, eta listo. Eta gero pasea ematen zaio edo ez, baina hor dago. Eta beste batzuk berriz elaborazio geldoagoa dute. Eskaiolazko zilindroek, adibidez, eskaiolaren geruzak eta geruzak dituzte, eta geruza eta geruza artean lehortu egin behar du eskaiolak, bestela ez du heltzen. Horrek denbora dezentez gehiago eskatzen du.

Mundu zaila dela esan daiteke artistarena?

Ez dakit erantzuten. Beste munduak ez dakit zenbaterainoko zailak diren. Beste alor askotara pasa daitekeen galdera dela pentsatzen dut. Bakoitzaren barruan zailtasun ezberdinak daudela iruditzen zait, eta egia da, gizarte honetan interes gehiago dagoela zenbait alorretan beste batzuetan baino. Hori alde edo kontra eduki dezakegu. Nire esperientziatik ez dut gehiegi pentsatzen horretan, eta gauzak egiten

saiatzen naiz. Momentuz gustura nago.

Bidea marrazten ari zara.

Pribilegio bat da alde horretatik aukera edukitzea, eta erakusteko aukera izatea. Horrek ez du ezer bermatzen, eta norberaren prozesua norberarena da, baina beti laguntzen du oreka edukitzen. Gauzak egiteko grina baduzu, eta egi-

teko aukera baduzu, nolabaiteko *feedback*-a sortzen du.

Beteko du San Telmo museoan zure lana erakusketa moduan jartzeak.

Bai, bai, noski. Oso pozik nago. Kontrakorik ez dut esango, eta aspektu askotan pribilegiatu bat sentitzen naiz, edo behintzat esker oneko bizitzen ari naizenarengatik.

Ez da jartzen duzun lehen erakusketa.

Hori da. Parte hartu izan dut erakusketa kolektiboetan, eta bakarkako beste batzuk ere egiteko aukera izan dut. Ondo. Esperientziak dira eta denetatik ikasten da.

Eta nolako esperientzia da artisten artean txoko bat egiten aritzearena.

Ez dut gehiegi pentsatzen termino horietan. Gertatzen ari da. Ez da pentsatua eta pozik nago. Momentu honetan gustura ari naiz bizitzen.

Baina eguneroko ogia ez dizu momentuz ematen.

Neurri batean hori izango litzateke helburua. Kasu honetan badaude zirkuitu batzuk merkatuari lotuago daudenak, eta hor bai ikusten dut desberdintasun bat norberaren lana garatzearen edo merkaturaren sartzearen artean. Horretan ari naiz, ateak jotzen, eta bitartean beste lan batzuk egiten ditut.

Irakasle?

Baionako Arte Eskolan marrazketa eta pinturako klaseak ematen ditut. Gustuko lana dut, eta eremu berdinean mugitzen naiz. Gutxi gorabehera hau -erakusketa- marrazketa eta pintura da, eta horrek nire lan pertsonalean eragina du, eta kontrakoa. Nire lan pertsonalak eragina du klaseak

«Oso garbi daukat hau hasiera besterik ez dela. Nahiz eta erakusketa batzuk egin ditudan bidearen oso hasieran ikusten naiz»

«Nire lan prozesuan iruditzen zait, momentuz, aberasgarria dela jauziak egitea»

ematerakoan, eta nahiko osagarri ikusten ditut zenbaitetan.

Aurrera begira, zer nahiko zenuke?

Ez dakit. Orintxe bertan oreka polit batean nagoela sentitzen dut. Noski, nire lan pertsonala garatzea litzateke helburu nagusia edo, baina esan duan moduan, askotan, irakasle postu batean egoteak behartu nau baita ere, nire lanaren inguruan hausnarketa pertsonal bat egitera. Postu horretan egoteak zenbaitetan lagundu egin dit.

Gaztea zara, eta bizitza oso bat duzu aurretik...



Nagore Amenabarro artista amezketarra San Telmo museoaren atarian. **E.M.**

Bai, bai. Eta hasieran aipatu dugu batik bat pintura egin dudala, baina bueno, hasi egin naiz gauzak eginen. Oso garbi daukat hau hasiera besterik ez dela. Nahiz eta erakusketa batzuk egin ditudan bidearen oso hasieran ikusten naiz.

‘Platina’ bukatuta. Orain esku artean baduzu beste lanik?

Zehazki ez. Egia da *Platina* erakusketa prestatzen ari nintzenean, prozesuaren ondorioz edo lantzen ari nintzen momentu horietan piztu zitzaizkidan lantzeko gogoia dudana ideia batzuk, baina ez daukate proiektu formarik. Landu ditudan zenbait gauzeekin jarraitzea gustatuko litzaidake, jarraipena ematea litzateke proiektu berri bat hastea baino.

Baionan lan, Hendaian bizi, baina amezketarra zara.

Mantentzen duzu loturarik zure herriarekin?

Bai, tarteka joaten naiz. Ahizpa bertan bizi da eta askotan egiten ditut bisitak.

Gustatuko litzaizuke zure herrian zure lana erakustea?

Bai eta ez. Ez dakit zer esan. Ez litzaidake inportako, baina ez daukat ezta horrelako interes berezi bat, baina gustatuko litzaidake.

Eta ingurukoek zer esan dizute zure lanaren inguruan?

Ingurukoak dira eta maite zaituzte, eta normala denez gauza positiboak esaten dizkizute. Orokorrean, iritzi oso positiboak jaso ditut, eta gustura nago. Benetakoak izan direla uste dut, eta ez zutela bestelako kutsurik.

ikastolak

hezkuntza eraldatzen

Aurrematrikula irekia urtarilaren
18tik 29ra



www.ikastola.eus

ikastolenelkartea





AITOR MENDILUZE
HARITUZ-EKO KIDEA

Denok arren eta arren

Doinua Kirolarion bizitza

Pasa ditugu Gabonak ahal zuenak pozarren zuriz mozorrotu dira berriz kanpo eta barren askatu egin gintuzten zerbait kontsumitzearren gu hartara ohitu nahian ahalik eta azkarren orain aurrera begira denok arren eta arren Olentzero lehor horrek ia ze berri dakarren askok gure gutunetan eskatu diogun arren.





JULEN TELLERIA
HIZTUNA

Gerrak

Bakoitzak bizi ditu bere gerrak. Eta iruditzen zaigu norberarenak direla garrantzitsuenak. Gure azalean, gure hezurretan bizi ditugulako. Baina, ez pentsa besteentzat horren inportanteak izango direnik. Ez sufritu hala ez bada, ez baita izango.

Nik, adibidez, eskola jazarpenera jasan nuen. *Bullying* ere esaten zaio. Deitu nahi diozun bezala, badakizu zertaz ari naizen. Garai hartan, ordea, gure artean behintzat, ez zuen izenik. Baina existitzen zen. Ondo dakit. Alboratua izatea. Bakarrik uztea. Barre egitea. Burla egitea. Umiliatzea. Makurtzea, fisikoki zein bestela.

Izen eta abizenak dituzte hori, behinola, egin zidatenek. Egin zidatenek, egiten zidatenari barre egiten ziotenek, isiltzen zirenek. Gehien-gehienak, nire lagunak dira orain. Kuadrillakoak ere bai. Batzuk, asko maite ditut. Ez diet, ez gorrotorik, ez halako ezer. Baina nire memoriak, ai, nire memoria, ezin du hori ahaztu. Behin, zaborrontzi handi batean sartu ninduten, esku askoren artean. Usain txarra neukala entzun behar izaten nuen gelan, denbora pasata ere.

Gogoan dut, bereziki, uda batez izan zela. Eta hurrengo ikasturtean ere sufritu nuen. Baina ez zen gehiegi luzatu kontua. Edo ez dut gogoan, behintzat. Baina, argazki batzuk, iltzatuta ditut barruan. Betiko. Inork kendu ezingo dizkidan tatuajeak dira. Eta, noski, gertaerok asko markatu zuten nire nerabeziaroa. Nire gaztaroa. Ni markatu naute. Oraindik, naizena, horren ondorio ere bada.

Lagunekiko dudak harremanean, gaur egun ere, eragiten dit iragan horrek. Kontziente naiz. Kontuz, ondo gaingitua dut guztia, orain ez dut arazorik. Baina aztarnak sumatzen ditut.

Gogorra egiten zait, orduan, nire gurasoek, nola bizi izango zuten pentsatzea. Aitak inoiz esan dit ausarta nintzela. Ez daukat sentsazio hori. Gaur, hemen, hau idazten ere, oso zaurgarri sentitzen naiz. Beti saiatu bainaiz ezkutu moduko bat jartzen. Ezer gertatu izan ez balitz bezala. Baina, ni ere, ahula naiz, bai.

Guzti honegatik, gai honek bereziki ukitzen nau. Ezin dut toleratu. Sutu egiten nau. Nahiz eta, gerora, ni libratzeko, beste batzuk ere jazarri ditudan. Ez nago harro, baina egin dut. Beraz, zure gerrarekin zuk nahi beste enpatia erakusten ez badut, ez zaitez haserretu. Hauxe da eta, nire.

Nik, adibidez, eskola jazarpenera jasan nuen. ‘Bullying’ ere esaten zaio. Deitu nahi diozun bezala, badakizu zertaz ari naizen.



**ONINTZA LASA
ARTEAGA
TOLOSARRA**

Zorionmetroa!

Urtea bi logiken barruan banatzen dugun pertsonak gauden. Ikasturtea ardatz hartuta edo urte naturala mugarri hartuta. Esango duzue, egitekoaren arabera logika bat edo bestea aplika daitekeela eta noski, ñabarduretan sartuz gero, zenbat buru hainbat aburu! Baina esperientzian nik bi joera nagusi horiek ikusi ditut eta bietan, itxaropena amankomuneko elementu antzeman ditut.

2020 urtean ordea beste logika bat ere gailendu zaigu, urtea bitan banatzeko marra martxoan jarri baitzen: pandemia aurreko eta pandemia osteko «aroa».

sentimenduak subjektiboak baitira; zoriontsu egiten nauenak edo besterik gabe, atsegin ematen didanak, niri balio dit eta ez derrigor hurkoari. Askotan, dena den, arlo bertsuak aipatzen ditugu guztiok ongizate edota zoriontasuna zerk ematen digun aipatzean.

Aurreko batean, Kopenhagen kokatua dagoen *Zoriontasun institutuan* lanean diharduen kide baten elkarrizketa irakurri nuen. Beste lekuren batean antzeko instituturik badagoen arren, Danimarkako hau, zoriontasunari buruzko gogoetak egiteko gune gisa definitzen da.

Nik jakin banekien Bhutanek Nazio Zoriontasun Gordin indizea ezarria duela 1972 urtetik. Neurri politiko eta publiko zehatzak hartzen dira zorion sentimendua bertako populazioan erdiesteko, argi bai-

Nik jakin banekien Bhutanek Nazio Zoriontasun Gordin indizea ezarria duela 1972 urtetik

Artikulu irakurleok, orain 2021eko urtarrila izanik, helburu-egiteko-erronka zerrenda egingo duzue askok, 2020koa salbuespen urtetzat jo nahi baitugu ziurrenik. Ilusio eta itxaropen berrituz beste etapa batean sartu nahi izatea osasuntsua da, psikologikoki batez ere. Are eta gehiago, gehien gailendu zaizkigun adierazle eta albisteak, BPG erorketak, kutsadura portzentaiak eta honelakoak izan direnean. Pisutsua, grisa.

Aurrera egiteko, zoriontsu egingo gaituzten erronkak finkatzen jarraitu behar dugu. Eta horretarako, geure buruarengan barne begirada findu behar dugu,

taukate, pilaketa materialak bere horretan ez duela zoriontasuna ematen.

Bhutango kasuan bederatzi adierazle hartzen dira kontutan neurketa egiteko. Danimarkakoan, besteak beste Nazio Batuek emandako erreferentziazko adierazleak kontutan hartuz garatzen duten beren *rankinga*.

Xalo izan gabe, ez legoke gaizki sartu garen urte honetan, hemen ere honelako neurgailu bat ezarri eta adierazleak finkatu ostean, beraien garapena ona izan zedin, politika publikoak martxan jartzea. Nik *Zorionmetroa* deituko nioke.



MAGAZINA

Pasahitza

Astelehenetik ostiralera

09:00etatik 13:00etara eskualdeko albisteak, eguraldi iragarpena, gonbidatuak eta gehiago.



PASAHITZA

Kantu eskaintza

Astelehenetik ostiralera

09:00etatik 13:00etara, abestiak eskaintzeko aukerak, 687 41 00 33 zenbakira mezua bidalita.




PODCAST-A

Desafioa

Herri kirolak

Joxe Anjel Sarasola asteasuarrarekin herri kirol munduko albisteen errepasoa, asteazkenean.



SAIO LIBREAK

Mingaina Txulora

Saio libre

Ostiralean, 21:00etan, erotikari buruzko saioa ATARIA IRRATIAN, Ibai Luque eta Jon Imanol Etxaberekin.



Saio guztiak hemen,
ataria.eus/irratia-n-entzungai

OSTIRALA

PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa, helduen solasaldia...

PODCAST-A

15:00. Kulturalari Begira Irati Saizarren eskutik. Asteburuko agenda.

ZEBRABIDEA

16:00. Magazina.

LARUNBATA

TRIKITIA

10:00. Trikiti musika goizean zehar.

BERTSO JAIALDIA

18:00. Ataria bertso jaialdia zuzenean.

ETA BELEAK

20:00. Antzerkiari buruzko saioa, Idoia Gereñurekin. Tartean, elkarrizketa.

IGANDEA

TRIKITIA

10:00. Trikiti musika.

HARI NAIZELA

14:00. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola *felix*-ekin.

MUSIKASI

18:00. Musika klasikoaren tarteak.

LOKATZETAN

21:00. Saio umoretsu lo-kaztua.

ASTELEHENA

PASAHITZA

09:00-13:00. Eguraldia, agenda, zuzeneko kone-

xioak, kantu eskaintzak, iritziaren tarteak, eguneko gaiak eta asteburuko albisteak.

BASERRITIK

15:00. Landa eremuaren inguruko saioa, protagonistekin.

ZEBRABIDEA

16:00-18:00. Arrosa sarearen magazina. Euskal Herriko aktualitatearen inguruan.

MAILU TA AKUILU

20:00. Musikari buruzko saioa.

HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818



zozketak

Atarikideentzat **liburu bat** daukagu



Josu Ozaita antropologo
ibartarraren **Piparra**
liburua

- Eusebi Etxebeste
(Ibarra).

Ataria Jarriko da harremanetan

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



Laika haur antzerkirako bi
sarrera zozkatuko ditugu.

Ez dago irabazlerik. Villabona herrian
sartu-irtenak mugatuta daudenez, eta
zozketan herriko inork parte hartu ez
duenez, esleitu gabe geratu da.



Aiztondoko eskola publikoa

Aurrematrikulazio epea zabalik
Urtarrilaren 18tik 29ra



Mamia fruitu gorrien 'coulis'-arekin



**AINZANE
ARTOLA**



Etxe gehienetan jaten den azken buruko bat prestatuko dugu gaurkoan: mamia. Errezeta sinplea denez, *coulis* batez hornituko dugu, aparteko ukitu bat emateko.

Mamiari urteen poderioz garrantzia kentzen joan gara, baina berriro ere konturatzen hasi gara zein berezia den, urteko hilabete bakar bateko produktua baita. Orain da garaia: orain dugu esnea merkatuan salgai.

Nafarroan kokatzen da euskal kutixi honen jatorria. Esnekiez egindako postreak oso ohikoak izan dira gure mahaietan baina mamiari agian ez zaio behar besteko garrantzirik eman. Idiazabal gazta batek agian toki gehiago eduki izan du gure mahaietan.

Gabonetatik hasi eta udaberria bitarte, arkumeak jaiotzen diren garaia izanda, eta ardiak ukuiluan egoten diren garaia izanik, ardi-esnea orain eskuratu daiteke.

Tolosako azokan esaterako, oraintxe eskuratu daiteke ardi esnea mamia egin ahal izateko. Gure baserritarrek azokara esne gordina ekartzen dute. Litro t'erdiko botila hiru euro t'erdian eskura daiteke, gutxi gorabehera. Beste aukera bat izan daiteke supermerkatuetan eskuratzea, baina kasu honetan esnea jada tratatuta egongo da. Esne bat edo bestea erabili, ezberdin jokatu beharko dugu.

Esne gordina erabiliz gero, egosi egin beharko dugu, postrea egiten hasi baino lehen. Ardi esnearekin kontu handiz ibili behar gara, irakiten hasten den momentuan, erabat goratu eta gainezka egiten baitu. Hortaz, kazola altu samar bat erabiltzea gomendatzen dut. Ondoren, esnea hozten utziko dugu. 30 gradu, temperatura egokia izango da (behatza sartu eta epela sentituko dugu). Aldiz, esnea pasteurizatuta erosiz gero, epelduko dugu, aipatutako temperatura lortu arte. Kristalezko jogurt tarroak erabili daitezke, edo buztinezkoak. Ontzi bakoitzean legami tanta batzuk botako ditugu eta jarraian esne epel hori, segituan ikusiko dugu esnea nola mamitzen den. Jarraian, hozten utziko dugu.

Azkenik, *coulis*arekin jarriko gara, marmelada fin-fin bat izango da, azken batean. 100/10 proportzioarekin fruta (guk fruitu gorriak aukeratu ditugu) eta azukrea, limoi tanta batzuek lagundurik egosten jarriko dugu. Marmelada testura hartzen duenean, irabiagailutik pasako dugu. Ondoren, txino batetik ere pasa dezakegu. Horrela, marmelada fin-fin bat lortuko dugu, inongo zatirik gabea. Mamia bakoitzari gainetik botako diogu *coulis*-a. Honela gure mamiak beste gozagarririk ez luke beharko.

OSAGAIAK

Ardi esnea.
Gatzatua edo legamia.
100 gr. fruitu gorri.
10 gr. azukre.
Limoia tanta batzuk.

AGENDA

OSTIRALA URTARRILAK 15

TOLOSA

KARRUSELA

Gabonetako karrusela egongo da Trianguloan. Azken egunak izango dira.

ERAKUSKETA

EmPoderArte elkarteak eta Tolosako Berdintasun sailak antolatutako erakusketa da *Sorginak!* Aranburu jauregian ikusgai egongo da otsailaren 6a bitarte. Artista ezberdinen lanak jasotzen dira.

ERAKUSKETA

Euskal Herriko Argazki Taldeen Federazioaren *Argizaiola* argazki lehiaketa, lehiaketaren lehiaketa. Erakusketa ibiltaria hau 2019. urtean egindako 39. edizioari dago- kio. Ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 2a bitarte.

LARUNBATA URTARRILAK 16

TOLOSA

BERTSO JAIALDIA

18:00. Ataria Bertso Jaialdia. Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Sustrai Colina Leidorreko taula gainean izango dira. Gai jartzailea, Amaia Agirre izango da.

Irakurri erreportajea 4-5 orrietan.



IGANDEA URTARRILAK 17

AMASA-VILLABONA

HAUR ANTZERKIA

17:00. Haur antzerkia. Laika ikus- kizuna. Lau urtetik aurrerako hau- rrei zuzendurik. Testurik gabea. Sarrerak 4 euroko kostua du. Xi- rriquiteula Teatrek eskainiko du ikuskizuna. Aktoreak Enric Ases, Marc Costa, Christian Olive, Da- niel Carreras eta Iolanda Llan- so izango dira. Istoria 1957ko Mos- kun kokaturik dago. Gerra Ho- tzean eta espazioko lasterketan. Laika txakurtxo hiri izoztuko ka- leetan zehar bizi da. Ez du inolaz ere imajinatzen bere patuak es- paziora eramango duela Sputnik 2 delako espazio-ontziaren bar- nean, eta gizateriaren historiara pasako dela, Lurraren inguruan orbitatzen duen lehen izaki bizi- duna izateagatik.



ASTELEHENA URTARRILAK 18

ZIZURKIL

ERAKUSKETA

Munduari itzulia erakusketa, Pla- zida Otaño liburutegian. Gaur hasi eta urtarrilaren 30a bitarte ikusgai.

ZINEMA



EL INCONVENIENTE

Larunbata, igandea eta astelehena (19:00).
Gurea, Amasa-Villabona.



EN GUERRA CON MI ABUELO

Igandea (16:00).
Leidor, Tolosa.



JOSEP

Igandea eta astelehena (19:00).
Leidor, Tolosa.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da hona-koa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.



GARAI ZAILETAN ITXAROPEN IZPIAK

2020a ez zen urte gozoa izan kultura sustatzen duten eragileentzat; hala ere, lehengo dinamika berreskuratzen dihardute azken asteetan. Bonbereneak ere jakin du ezohiko egoera gainditzen, ezarritako neurriei, musika jarritz; lau kontzertu iragarri dituzte otsailerako.

Josu Artutxa Dorronsoro

Pasa zen 2020ko otsaila. Inauterietako ajeak oraindik gorputzean zituztela, gogotsu ekin nahi zioten udaberriari Tolosako Bonberenea gaztetxeko kideek. Hainbat kontzertu antolatu zituzten martxorako. Baina behin herriko jaiak igaro ondoren, etxeko jarduera ezberdinei martxa hartzen hasiak zirela heldu zen COVID-19a. Mundu osoa hankaz gora jarri zuen pandemiaren ondorioz, gaztetxea ere itxi behar izan zuten.

Asteek aurrera egin ahala, geroz eta konplexuagoa zen gazteentzat euren etxean kultura sustatu

eta babestea; ezarritako neurriek ere ez zuten baterre laguntzen. Hori dela eta, udan atsedenaldi txiki bat hartzea erabaki zuten. Gero, iraila heltzearekin batera, berriro ekin zioten aurretik zuten dinamikari.

Bide berriak eraikiz

Oraindik ere ezin izan zioten kultur dinamikari heldu, eta beraz, bestelako jardueretan murgildu ziren gazteak. Izan ere, Bonberenea ez da soilik kontzertuez edota grabaketez elikatzen. Gazteentzat ezin bestekoa da etxea txukun mantentzea, eta noizean

behin, konponketa txikiak egitea nahiz bertako hainbat txoko berritzea. «Aldaketak beti gertatzen dira, eta, pareta hauen barruan, aldaketek zerbait berria esan nahi dute», diote gaztetxetik.

Gauzak horrela, goiko solairuko komunak, jangela eta sukaldea berritu zituzten iaz.

Orain, osasun neurriak jarraituz, kontzertuetarako sarrera eta larrialdietako irteera berria jarri dituzte pabiloian. Gainera, etxearen kanpoaldea atondu zuten, Neor artistaren eskutik. «Kultura kolorez egin behar denez, kolorez margotzen ditugu gure paretak. Udazkena negu bilakatzen hasi zen unean, kolorezko grafitiz margotu genuen eguraldi grisa».

Etxeko ikasketa prozesua ere etengabe mantentzen dela aitortzen dute gazteek. Horregatik, ikas-

Osasun neurriak jarraituz, kontzertuetarako sarrera eta larrialdietako irteera berria jarri dituzte pabiloian

teko aukera ere eskaintzen da Bonberenean: musika tresna bat jotzen, soinu edo argi teknikari lanak egiten, kozinatzen... «2020an, COVID-19aren protokoloak izan dira ikasgai nagusia», diote.

Bestalde, gaztetxeko tabernan urte askotan ohiko garagardoak izan eta gero, etxeko garagardoa dastatu daiteke orain. Bi motatako garagardoak ekoitzi dituzte: Bonbier Olki American Pale Ale eta Bonbier Liztor Pilsen. «Etxeko zaindaria eta lagun ditugun bi txakurren omenez aukeratu ditugu izen horiek».

Musika bidelagun

Birusak birus, eta protokoloak protokolo, musikak eta musika inguratzen duten alorrek jarraitzen dute gaztetxearen ardatz nagusia izaten. «Gure ohol-



Abenduan, pabiloiko ate berritik sartu zen publikoa kontzertuetara. **BONBERENEA**

tzak ere sutan jarrai dezan, ezinbesteko lana egin dugu hainbat esparrutan, maitasun handiz. Oholtza honetatik, urtero bezala, hainbat talde igaro dira: ezagunak, berriak, ez hain ezagunak, betikoak... Askotariko estiloez bustiak, ahal den neurrian, zentzumen eta gustu guztiei ahalik eta eskaintza aberatsena eskaintzeko».

Horren erakusgarri da otsaileko asteburuetarako osatu duten egitaraua. Lau talderen kontzertuak izango dira: otsailaren 5ean, Bartzelonako Nueva Vulcano taldea ariko da; 13an, berriz, Xixongo Elle Belga; 20an, Sara Zozaya donostiarra; eta 27an, Leihotikan talde iruñarra. 19:00etan hasiko dira saio guztiak eta gehienezko edukiera 50 lagunekoa izango da. Sarreran nahiz kontzertuek iraun bitartean, nahitaezkoa izango da maskara jantzita edukitzea. Zortzi euroko prezioa izango dute sarrek eta ez da aurre-salmentarik izango.

Ezohiko egoeran egon arren, Bonberenea Ekintzak zerbitzuari esker, hiru lan berri argitaratu dituzte

Bertako nahiz nazioarteko norbanako eta eragile askoren moduan, gaztetxeko kideek ere kultura segurua dela aldarrikatu dute hilabete hauetan guztietan. Bonberenea Ekintzak da etxearen zigilua, autogestioan oinarritutako kulturaren plataforma eta eragilea. Beste urte batez, martxan izan da zer-

bitzua, eta ezohiko egoeran izanda ere, hiru lan berri gehitu dituzte euren katalogora: Rodeo taldearen *Ezherrian* (10" EP-CD), Losado taldearen *Losado* (10" EP-CD), eta Lepora taldearen *Lepora* (LP/CD).

Era berean, hainbat musika talde igaro dira gaztetxeko estudiotik diskoak grabatzera, hala nola, Killerkume, Petti, Arima, Losado, Viva Belgrado, Sacco, Estarlus eta Abereh.

Hain justu, 2021eko otsailean aurkeztuko du Arima taldeak *Biluztasunez Jantzita* diskoa. Halaber, etxean bertan ekoizitako musika eskaintzeko *Bonberenea Irratia* hedabidea ere martxan izan da aurtan.





laz, hainbat taldek grabatu zituzten diskoak eta bideoak gaztetxean. **BONBERENEA**

«Gure egin dugun gunea»

Behinola, inguruan kultur dinamikarik ez zela eta, kultur jarduera bermatzeko eragile gisara sortu zen Bonberenea. Azken urteetan, gaztetxean kide berriak sartu badira ere, asmo berarekin dihardute gaur egun. «Etxeak etengabeko aldaketak izan ditu, belaunaldi berriak gehitzen joan dira, eta hori gure aldaketen isla paregabea da. Hala ere, betiko dinamikarekin jarraitzen du, nahiz eta pandemia hone-tan funtzionamendua zertxobait egokitu behar izan dugun».

Abenduan bete zituen 23 urte gaztetxeak. Beste modu batera, baina ohiturari jarraituz, su artifiziale-kin ospatu zuten efemeridea. Bi hamarkada baino gehiago dira etxe bat okupatu zutela. Eraikinar bi-zia ematen eta proiektu ezberdinak antolatzen eta aurrera eramaten aritu dira orain arte. Datozen urte-etan ere berdin jarraitzeko asmoa dute. «Beste urte-bete egin dugu etxe honetan, gure egin dugun gune honetan, gure etxean. 23 urte bete ditugu jada, eta oraindik ere gogor dihardugu lanean, betiko mo-duan, kultura indartzen eta eskuragarri egiten».

BONBERENEA GAZTETXEA OTSAILEKO EGITARAUA

OTSAILAK 5, OSTIRALA

NUEVA VULCANO (BARTZELONA)

19:00. Irailean kaleratu zuen *Ensayo* izeneko dis-ko-a aurkeztuko du rock talde kataluniarrak.

OTSAILAK 13, LARUNBATA

ELLE BELGA (XIXON)

19:00. Ekainean aurkeztu zuen *Simetria* izeneko bere laugarren diskoa folk talde asturiarrak.

OTSAILAK 20, LARUNBATA

SARA ZOZAYA (DONOSTIA)

19:00. 12 urterekin ekin zion kantuak sortzeari eta 2018rako osatu zuen bakarkako lehen lana: *///*.

OTSAILAK 27, LARUNBATA

LEIHOTIKAN (IRUÑEA)

19:00. 2018an kaleratu zuen azken diskoa, *Non zaude?* izeneko, eta 2022an 30 urte beteko ditu.

**Nahitaezkoa izango da maskara jantzita izatea. Edukiera: 50 lagun. Sarreren prezioa: zortzi euro.*



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro kaxkarra.
Goizean zerua

oso hodeitsu egongo da eta euri zaparradaxka batzuk izango ditugu. Arratsaldean zaparradak tartekatuagoak eta ahu-lagoak izango dira, baina ez du erabat atertzerik lortuko. Haizeak ipar-mendebaldetik tarteka bizi joko du eta tenperatura balio altuenak 9-11 gradu bitartean errendituko dira.

LARUNBATA

Giro lasaia eta atseгина. Hego-mendebaldeko haizea bueltan, eta horrekin zeruan hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, urdineak zabalagoak izango direlarik eguneko erdiko orduetan. Arratsalde erditik aurrera hodeiak ugaritzen joango dira, egun amaieran zeru nahiko estalia gertatuko da. Hala ere, ez da euririk espero. Tenperatura antzeko balioetan mugituko da, balio altuenak 9-11 gradu bitartean errendituz.

IGANDEA

Giro kaxkarragoa. Zeruan hodeitza handia izango da eta hodei hauek euri pixka bat ere utziko dute. Zaparradak ahulak izango dira eta gehienbat egunaren bigarren zatian botako ditu. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, altuenak 9-11 gradutan errendituz.

ASTELEHENA

Giro lasaia. Hego-haizea sartuko da eta horrekin batetik, euririk ez da izango eta bestetik, tenperaturak zertxobait gora egingo du. Egunean zehar hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira. Tenperatura balio altuenak 10-12 gradu bitartean.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

URTARRILAK 15, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Eurne Mujika Martinez.
Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

URTARRILAK 16, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

URTARRILAK 17, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi kalea, 6-behea 1.
943 67 51 18.

URTARRILAK 18, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarrizketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea

Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

- Whatsapp bidez: **687 410 033**
Abestiak eskaini, zoriondu,
albisteen berri eman,
proposamenak egin, kexak....

ESKUALDEKO
EUSKARAZKO IRRATIA



AURREMATRIKULA IREKIA URTARRILAREN 18TIK 29RA




TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

ESKOLA EUSKALDUNA, INTEGRATZAILEA ETA BIZIA

**ZATOZ
SAMANIEGO
BISITAZERA**

*Eskaneatu QR kodea
eta hitzartu zurea*



0-18 urte bitarteko heziketa eskaintza publikoa

Informazioa
samaniego-tolosa.hezkuntza.net
943 651 063 / 688 867 570